ZER DA ORDAINKETAK BABESTEKO ASEGURU BAT?

Zure zorrak ordaintzen lagunduko dizun asegurua da,
zure ekonomiari eragiten dion
arazo larri bat duzunean
eta ordaintzen jarraitu ezin duzunean.

Adibidez:

- Lana galtzen baduzu.
- Aldi baterako ezintasuna edo ezintasun iraunkorra baduzu.
- Gaixotasun larri bat baduzu.
- Hiltzen bazara.

Aseguru horri esker,
zure mailegu, hipoteka edo kreditu-txartelen
kuotak ordaintzen jarraitu ahal izango duzu.

Zer sartzen da aseguru honetan?

Aseguru hau txartel, hipoteka edo mailegu
batekin kontratatzen ohi da.

Eta espero ez zenuen zerbait gertatzen bada,
aseguruak txartel, mailegu edo hipoteka
horren kuotak ordainduko ditu.

Nola kalkulatzen da aseguruaren prezioa?

Aseguruaren prezioari **aseguruaren prima** esaten zaio.

Aseguruaren prezioa aldatu egingo da,
kreditu-txartelarekin edo maileguarekin
kontratatu izanaren arabera.

Normalean, aseguruaren prezioa
horrela kalkulatzen da, baina
kalkulatzeko beste modu batzuk egon daitezke.

Asegurua kreditu-txartel baterako bada:

Prima hilero ordainduko da.
Prezioa kalkulatzeko, txarteletik erabili duzun diruari
ehuneko txiki bat aplikatuko zaio.

Horregatik, prezioa hilabete batetik bestera alda daiteke.

Adibidez:

Demagun kreditu-txartel bat duzula
eta, hil honetan, txartelarekin 1.000 euro ordaindu dituzula.

Kontratuaren arabera, aseguruak erabili duzun
diruaren % 1 balio du.

1.000 euroren % 1 10 euro dira.
Beraz, hil honetan aseguruagatik 10 euro ordainduko dituzu.

Baina hurrengo hilean txarteletik 500 euro
erabiltzen badituzu, aseguruaren % 1 5 euro dira.

Beraz, hil horretan aseguruagatik 5 euro ordainduko zenituzke.

Asegurua mailegu baterako bada:

Aseguruaren prima ere hilero ordainduko da.
Baina kasu horretan beti zenbateko bera ordainduko duzu.

Aseguruaren prezioa kalkulatzeko, maileguan
emandako diruari ehuneko jakin bat aplikatuko zaio.
Ez dira sartuko ez interesak, ez bestelako gastuak.

Adibidez:

8.000 euroko mailegua **eskatu duzu**.
Ordainketak babesteko aseguruak % 1 balio du.

8.000 euroren % 1 80 euro dira.
Beraz, hilero 80 euro ordainduko dituzu
aseguru hau kontratatua izateagatik.

Zer izan behar duzu kontuan aseguru hau kontratatzean?

Ordainketak babesteko asegurua kontratatu aurretik,
garrantzitsua da honako hau kontuan hartzea:

1. ZER ZOR MOTA ESTALTZEN DUEN

Aseguruak hauek estaltzen dituen jakin behar duzu:

- Hipoteka.
- Mailegu pertsonala.
- Kreditu-txartela.

2. ZEIN DEN ESTALDURA ETA ZENBAT IRAUTEN DUEN

Jakin behar duzu aseguruak zure zorrak
zenbat denboraz ordainduko dituen.

Adibidez: 3 hilabete, 6 hilabete, urtebete.

Halaber, garrantzitsua da jakitea
aseguruak zor osoa edo zati bat bakarrik ordaintzen duen.

3. ZEIN DIREN ASEGURUA ERABILTZEKO BALDINTZAK

Zer baldintza bete behar dituzu
aseguruak ordain dezan?

Badago itxarote-denborarik asegurua erabili aurretik?
Denbora horri **gabealdia** deritzo,
eta sinatu duzun kontratuan jasota dago.

Gertatu zaizuna frogatzeko agiririk aurkeztu behar al duzu?

Adibidez:

- Lanik ez duzula.
- Ezintasun bat duzula.

4. ZER EZ DAGOEN ASEGURUAN SARTUTA

Aseguru batzuek ez dituzte zorrak estaltzen, baldin eta:

- Lana zeure erabakiz utzi baduzu.
- Arrazoirik gabe kaleratu bazaituzte.
- Gaixotasun bat bazenuen asegurua kontratatu zenuenean.
- Ezintasuna jarduera arriskutsuen ondoriozkoa bada.

Oso garrantzitsua da kontratua ondo irakurtzea,
aseguruak zure zorrak noiz **ez dituen** ordainduko jakiteko
eta ezusteko desatseginak saihesteko.

5. ZEINTZUK DIREN KALTE-ORDAINEN MUGAK

Aseguruak gehienezko diru-kopuru bat du
zure zorrak ordaintzeko.

Garrantzitsua da aseguruak ordainduko
duen gehienezko kopurua zein den jakitea.

Kopuru horri **gehienezko kalte-ordaina** deitzen zaio.
Sinatzen duzun kontratuan jasota dago.

Prima handia ordaintzen baduzu,
ziurta gehienezko zenbateko hori
zure zor guztiak ongi estaltzen dituela.

Adibidez:

Ordainketak babesteko asegurua kontratatu duzu,
eta gehienezko kalte-ordaina 6000 eurokoa da.

5.000 euroko zorra baduzu,
aseguruak zor osoa ordainduko du.

8.000 euroko zorra baduzu,
aseguruak 6.000 euro baino ez ditu ordainduko.

Gainerako 2.000 euroak zuk ordaindu beharko dituzu.

6. ASEGURU-ENPRESARI BURUZ

Asegurua kontratatu aurretik,
garrantzitsua da jakitea:

- Zer aseguru-etxe den.
- Konfiantza ematen dizun.

Ikertu aseguru-etxeak
behar duzunean azkar erantzuten duen
eta kontratuak dioena betetzen duen.

Zerbitzu ona oso garrantzitsua
da une zailetan.

Azken aholkua

Ordainketak babesteko asegurua
izatea ez da derrigorrezkoa.

Baina lasaitasuna eman diezazuke,
zerbait gertatzen bada eta zorrak ezin badituzu ordaindu.

Kontratatu aurretik, gogoratu:

- Pentsatu zure egoera ekonomikoan.
- Alderatu zenbait aseguru.
- Irakurri ematen dizuten informazio guztia.

Zure lasaitasuna garrantzitsuena da.

LF
Irakurketa errazeko testua